



# Gogoan dut

Aritz Galarraga

Upaingoa, 42

978-84-9172-219-9

2021. urtea - 144 or. - 13x19 cm

12,00 €

Esaten dute memoria garela. Oroitzapenik gabe ez ginatekeela, horiek egiten gaituztela. Gogoratzen duena, beraz, bizi da, badu etxe bat, oraina, gizatasuna. Ariketa ezin sanoa-go da. Nahiz batzuetan gerta daitekeen zaurgarria.

Hain zuzen, memoria ariketa bat da *Gogoan dut* liburua, pertsonala, intimoa, ezer ezkututzen ez duena. Joe Brainard, Georges Perec edota Joseba Sarrionandiak ibilitako bidetik, printza labur, kolpe zuzen, pasarte jakingarriak bilduz osatzen da idazlearen biografia. Gogoratu bezala daude oroitzapenok, auskalo hala gertatu zen dena; baina ez daude ederretsita, edo nahitara aldatuta, fikzioaren legeek ahalbidetzen dituzten tranpak erabilia. Dena jaso da memoriak jaulki duen gisara.

Eta, azkenerako, oroitzapenez oroitzapen, ariketa pertsonala zena, ez ote den bilakatzaren garai, giro, belaunaldi oso batena.



**Aritz Galarraga**  
(Hondarribia, 1980)

Arte eta Literatura ikasketak egin ditu Bilbo eta Bartzelonan. Unibertsitate irakasle gisa aritu da UABn, UBn eta EHUUn.

Ipuin katalan garaikideak biltzen dituen *Hobe kontatzen ez badidazu* (2014) liburuko aukeraketa eta hitzaurrea egiteaz gain, Joxemari Iturralde (*Kaleidoskopia*, Pamiela, 2012) eta Joxemiel Bidador (*Klasiko bitxi, arront klasiko*, Pamiela, 2016) idazleen prentsarako artikuluen edizio bana prestatu du.

Salvador Espriu eta Joan Vinyoli poeta katalanen poemak itzuli ditu euskarara, eta Gabriel Ferrater poeta katalanaren poema antologia bat publikatu du Munduko Poesia Kaierak bilduman.

Euskal hedabideetako ohiko kolaboratzailea da, *Argia*, *Berria*, *Deia*, *Erlea*, Euskadi Irratia, *The Balde* eta abarretan. *Estralanak* liburuan (2017) bildu dizkiote prentsarako idatzi dituen testu esanguratsuenetako batzuk. *Posteritatea* izeneko lanean (2020), aldiz, hamar urtez idatzitako nobedade ez diren liburuen iruzkinak.

